Ahalmen Handiko errepideen sareari esker – horien artean daude dokumentu honen xedeko autobideak –, Bizkaiko lurraldearen egituraketa gauzatu daiteke. Gure bide-sarearen ezaugarriak zehaztu dituzten arrazoiak ulertzeko, historiari buruzko gogoeta egin beharra dago ezinbestean, aberastasuna sortzeko gune nagusiei buruzkoa, eta, beraz, Bizkaiko ekonomiaren eta gizartearen eragile nagusiez hausnartu behar da.

Ahalmen handiko azpiegituraren xedea, jatorrian, aurretik dagoen eskaria betetzea da. Alabaina, azpiegitura egindakoan, aldi bereko eragina du haren eraginpeko eremuko garapen demografikoan eta ekonomikoan, eta udalerri batzuen hazkundera erraztu eta beste batzuen mugatzen du.

XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera bitartean, Somorrostroko (Muskiz, Abanto-Zierbena, Zierbena, Santurtzi, Ortuella, Trapagaran eta Sestao udalerriak), Galdamesko eta Sopuertako burdin-ustiapenak, kalitate handia zuenez oso estimatua European, Bilboko Portuaren hazkundera bultzatu zuen, baita Nerbioiko ezkeraldeko industria


siderometalurgikoaren garapena ere. Hasiera batean, trenaren aldeko apustua egin zen, barnermerkatua penintsularekin lotzea eta portuarekin komunikatzea ahalbidetuko zuen garraiobidetzat jo baitzen. Gerra Zibilean, ordea, trenbide-azpiegitura dezente hondatu zen, eta, gerraostean, hornidura-eskasia egon zen. Horren ondorioz, errepide bidezko garraioak gora egin zuen pixkanaka.

1950eko hamarkadan, Bizkaia errepide-sare modernoak edukitzeko kudeaketak hasi ziren, eta 1965aren eta 1975aren artean jarri ziren martxan.

1970eko hamarkadan hai ziren zerbitzuan AP-8 autobidea, Bilbo eta Behobia artean, AP-68 autobidea mesetara, Altube zeharkatuta, eta Hegoaldeko Irtenebidea (A-8), ibilgailu astunak Bilboko hirigunetik ibil zitezen saihesteko. 1980ko hamarkadan, berriz, Ugaldebietako Irtenebidea jarri zen martxan (San Fuentesperaino) eta, 1990eko hamarkadan, San Fuentes eta Haya arteko tarteak (Kantabriarekiko mugan).

INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

2.1.1.1 grafikoa. Biztanleriaren bilakaera (1900 – 1991 aldia).



1970ean, Bizkaiak milioitik gorako biztanleria zuen, Euskadiko guztizkoaren % 55. Udalerririk populatuena, hiriburuaz gain, Barakaldo, Santurtzi, Portugalete, Getxo eta Sestao dira. Era berean, Basauriko hazkunde handia nabarmendu behar da, industria asko kokatu zirelako bertan eta etxebizitza-kopuru handia egin zelako.

1980ko hamarkadatik aurrera, bizkaitarren populazioak izugarri egin zuen behera; besteak beste, industria eraldatzeko prozesuagatik eta 1990eko hamarkadaren hasierako krisiagatik. Biztanleriak 2004an jo zuen behea, 1,12 milioi biztanle ingururekin, eta, geroago zerbait bat gora egin bazuen ere, 2012an berriro jaitsi zen, ekonomia-krisiaren eraginez.

2024an, Eustaten datuen arabera, Bizkaian 1.150.037 biztanle daude, aurreko urtean baino zertxobait gehiago (% 0,5).

Azken hamarkadan (2014- 2024), Bizkaiko guztizko biztanleria % 0,5 hazi da, eta Bilboko Metropoliaren Eremua dugu biztanleria guztizko balioetan gehien murriztu deneko eskualdea Bizkaian.


Balio erlatiboetan, biztanleria-igoera handiena izan duten eskualdeak, berriz, Arratia/Nerbioi, Mungialdea eta Durangaldea dira.

Ahalmen handiko sarea da lurraldeko ardatz demografikorik dinamikoena.

2.1.1.1 taula. Biztanleriaren hazkundeak eskualdeka.

Eskualdea	Δ Biztanleria (2014- 2024)	
	biztanleak	%
Metropoliaren eremua	-2020	-% 0,2
Mungialdea	5.300	% 9,6
Busturialdea	757	% 1,7
Lea-Artibai	-658	-% 2,5
Durangaldea	1807	% 1,8
Arratia/Nerbioi	547	% 2,3
Enkarterri	90	% 0,3
BIZKAIA	5.823	% 0,5

2.1.1.1 irudia. Hazkunde demografikoa eremu funtzionalaren arabera (2014-2024 aldia).



2.1.2 AZTERKETA DEMOGRAFIKOA 2024. URTEAN

Eustatek biztanleriari buruz argitaraturiko azken datuen arabera (2024ari dagozkio), Bizkaiko lurraldeak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztien % 52,1 hartzen du, hau da, 1,15 milioi bat lagun, baina modu irregularrean banatuta daude Bizkaia osatzen duten 112 udalerrietan.

Geografiaren ikuspegitik, ezaugarri nagusia da bizkaitar gehienak 3 udalerrian bizi direla: Bilbon (guztizko populazioaren % 29,9 bizi da bertan), Barakaldon (% 8,7)


eta Getxon (% 6,5). Hiruren artean, Bizkaiko biztanleriaren ia erdia hartzen dute (% 45,2).

Bestalde, udalerrien % 36k 1.000 biztanle baino gutxiago dauzkate. Udalerrien % 77,2tan, 10.000 lagun txiango bizi dira.

Banaketa geografiko horren eragina erabakigarria da herritarrek bidaetan erabiltzen dituzten garraio-moduetan.

INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

2.1.2.1 grafikoa Bizkaiko eta Euskadiko udalerriak, biztanleriaren arabera. 2024. urtea.



2.1.2.1 taula. Bizkaiko eta Euskadiko udalerriak, biztanleriaren arabera. 2024. urtea.

Biztanleria-tarteak (biz.)	Udalerri-kop.	Biztanleria guztira (biz.)	Udalerriak gutzira (%)	Biztanleria (%)
<1.000	37	18.532	%33,0	%1,6
1.000 – 5.000	40	91.215	%35,7	%8,0
5.000 – 10.000	15	110.208	%13,4	%9,6
10.000 – 20.000	9	135.666	%8,0	%11,8
20.000 – 50.000	8	270.575	%7,1	%23,6
50.000 – 100.000	2	174.857	%1,8	%15,3
>100.000	1	344.408	%0,9	%30,1
BIZKAIA GUZTIRA	112	1.145.461	%100	%100

2.1.3 EGUNEROKO JOAN-ETORRIAK

Eskura ditugun errolda-datuak hiru talde nagusitan sailkatzen dituzte garraiobideak: garraio pribatua, garraio publikoa eta oinez edo bizikletaz egiten diren joan-etorriak.

Biztanle gutxieneko herrietan (10.000 biztanle baino gutxiagokoetan) gehien erabiltzen den garraiobidea garraio pribatua da. Udalerriko biztanle-kopurua zenbat eta handiagoa izan, ostera, orduan eta handiagoa da garraio publikoaren erabilera, eta gehiago dira oinez edo bizikletaz eginiko bidaiak.

Izan ere, biztanleria udalerri jakin batzuetan biltzeak beste zerbitzu eta jarduera batzuk metatzea ekartzen du (adibidez, industria eta merkataritza), 2.3 atalean aztertzen den moduan. Horrez gain, biztanle gutxiagoko udalerrietako garraio publikoaren eskaintza txikiagoa izaten da udalerri handiagoetakoak baino.

Hortaz, bide-azpiegiturak funtsezkoak dira lurralde guztietara iritsi eta herritar guztien aukera-berdintasuna bermatzeko.

Euskadiko azken datu eskuragarriak aztertuz gero, biztanle gutxien dituzten udalerrietako biztanleen % 56,9k erabiltzen dute garraio pribatua ohiko bidaiak egiteko, eta horietatik % 56,4k autoa erabiltzen dute.

EAEko hiru hiriburuetan, aldiz (100.000 biztanletik gora dauzkate), % 30ek garraio pribatua erabiltzen du; horietatik % 28,5 autoz ibiltzen dira, eta gehientsuenak bizikletaz edo oinez joaten dira. Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko balioetan, gehien erabiltzen den garraiobidea garraio pribatua da (% 39,4), eta, horietatik, % 38,4k autoa erabiltzen dute; ondoren, oinez edo bizikletaz egiten diren joan-etorriak datoz (% 37,6), eta, azkenik, garraio publikoa (% 22,9).

2015eko eta 2020ko errolda-datuak alderatuta beha daitekeen joeraren arabera, garraio pribatua eta autoa gero eta gehiago erabiltzen dira, eta, halaber, oinez edo bizikletaz egiten diren joan-etorriak ere ugartzen ari dira; garraio publikoaren erabilerak, berriz, ia 6 portzentaje-


puntu egin ditu behera.

Bizkaian, 2020an garraio pribatua erabili zen gehien (% 36,3), eta horren ondoren etorri ziren bizikletaz nahiz oinez egindako joan-etorriak (% 34,8); azkenik, herritarren % 28,9k garraio publikoa erabiltzen zuten. 2015arekin alderatuta, oinez eta garraio pribatuan egiten diren joan-

etorriak ugaritu egin dira, eta garraio publikoaren erabilerak behera egin du (7 puntu baino gehiago).

Baliteke COVID-19aren pandemiaren ziozko mugikortasun-mugaketek Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bizkaiko balioetan eragin izana, inkesta 2020an egin baitzen.

2.1.3.1 grafikoa Euskadiko garraio-moduaren banaketa biztanleriaren arabera.



2.2 BIZILEKU-MUGIKORTASUNA

Biztanleriaren bizileku-aldaketen azterketari esker, azpiegiturek lurraldeko hiri-sakabanaketa prozesuan duten eginkizuna ikus daiteke; izan ere, eragina dute herritarrek ohiko joan-etorriak egiteko jarraitzen duten trafikoaren mugikortasun-ohituretan. Bizileku-mugikortasun hori migrazio-saldoaren bidez aztertzen da, hots, biztanle berriak eta joaten direnen arteko diferentzia udalerrri bakoitzean. Hala, saldo positiboa izateak esan nahi du biztanleak bizi izatera erakartzen dituen gunea dela udalerria. Prozesu horrek lotura estua dauka lurraldeko egoera ekonomikoarekin, eta, azken 25 urteotan, Bizkaian, migrazio-saldo positiboak ugariagoak izan dira ekonomia-oparaldietan.

1998tik 2007ra, ekonomia- eta finantza-krisi orokorra baino lehen, honako hauek izan ziren egoiliarak erakartzeko eskualde nagusiak:

- Bilboko Metropoliaren Eremua, Bilbo, Sopela, Etxebarri, Arrigorriaga, Leioa, Gorliz eta Berango udalerrietan;
- Mungialdea, gehienbat Mungia udalerrian, eta

- Durangaldea: gora egin du Durangon edo Amorebieta-Etxanon, eta behera Ermuan eta Iurretan.

2.1.3.1 grafikoa Biztanleriaren hazkundera eskualdeka.

Eskualdea	Saldoa (Biztanleria) 2019- 2023
Metropoliaren eremua	27.456
Mungialdea	3.715
Busturialdea	1.842
Lea-Artibai	315
Durangaldea	2.399
Arratia/Nerbioi	802
Enkarterri	1.138
BIZKAIA GUZTIRA	37.667

Migrazio-saldo positiboek harreman zuzena dute hiri- eta egoitza-garapenarekin. Etxebizitza-kopuruaren igoeran ikus daiteke hori: % 70 Etxebarrin, % 50 Durangon eta % 32 Mungian.

Bestalde, industrialagoak diren udalerrietan (hala nola, Basaurin, Sestaon, Santurtzin eta Galdakaon) edo egoitza-izaerako herri handietan

INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

(besteak beste, Portugaleten edo Getxon), migrazio-saldo negatiborik handienak ageri dira, Ermuaz gain.

Migrazio negatibo horrek zerikusia du familiek aldi horretan duten ahalmen ekonomikoarekin, baita etxebizitza hobetzeko nahiarekin ere (hain zuzen ere, biztanleguneetatik kanpora dauden beste batzuetara joateko gogoarekin), zeren eta etxebizitzaren prezioa handiagoa izaten baita halakoetan eta zailtasun handiagoak baitaude hirigune berriak izateko.

2007az geroztik, aldi ekonomiko berria hasi zen, non lanpostuak desagitea izan baitzen ezaugarri nagusia, baita okupaziotasa txikia eta biztanleria aktiboaren hazkundera ere. Bizkaiko lurralde historikoko urteko batez besteko langabezia-tasarik handiena 2014an izan zen (%17,2), eta okupazio tasa % 46,1era jaitsi zen.


Krisiaren urterik txarrenak igaro ondoren, argitaratu diren azken datuen arabera, 2024an Bizkaiko langabezia-tasa % 8,5ekoa da, aurreko urtean erregistratutakoa baino % 0,3 txikiagoa.

2014tik aurrerako susperraldi ekonomikoa, era berean, Bizkaian erregistratutako migrazio-


saldoetan egiazta daiteke. 2015etik aurrera, migrazio-saldoen guztizkoa positiboa izaten hasi zen, eta, 2016tik 2020ra, 27.652 biztanle mugitu ziren (Estatistikako Institutu Nazionalak dituen azken datuak 2020koak dira), biak barne. Udalerririk txikienek, 20.000 biztanletik beherakoek, eta 100.000 biztanletik gorakoek jasotzen dituzte egoiliar gehien. 50.000 eta 100.000 biztanleren arteko udalerriek, aldiz, biztanle gutxiago jasotzen dituzte. Eskualdeka, Metropoliaren Eremuaz gain, Durangaldeak eta Mungialdeak jaso dituzte biztanle gehien. Aldi horretan, honako udalerri hauek jaso dituzte egoiliar gehien: Bilbo, Barakaldo, Leioa, Santurtzi, Durango, Basauri, Amorebieta-Etxano, Urduliz, Portugalete eta Sopela.

Azterketa honetan ondoriozta daitekeenez, bide-azpiegiturak hobetzeak edo prestazio handiko sarea izateak erraztu egiten du bizilekuaren eta lantokiaren artean mugitzea. Horrek esan nahi du biztanleak hazkunde handiagoko eremuetara joaten direla, metropoliaren eremutik kanpo, sakabanaketa handiagoa ekarriz horrela.

2.1.3.2 grafikoa Langabezia-tasa EAEn (1985-2023).



2.1.3.1 irudia Biztanleen migrazio-tasa 2019 eta 2023 urteen artean.



2.3 ENPRESA-DEMOGRAFIA

Bide-sarearen ondorio ekonomiko nagusienetako bat inbertitzaile pribatu industrialak nahiz zerbitzu-etako inbertitzaileak kokatzeko erabakietan duen eragina da.

Atal honetan aztertzen denez, AP-8a, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea eta Artxandako Tunelak, ahalmen handiko bide-sarearen zati diren aldetik, beharrezkoak eta funtsezkoak dira Bizkaiko ekonomia, enpresak eta lurraldea garatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2024. urtean, orotara, 165.214 establezimendu daude erroldan jasota (dendak, bulegoak, lantegiak...), eta horietatik 85.977 Bizkaian daude (guztira, 473.029 laguni ematen diete lana).

Establezimendu-kopuruari erreparatuta, ugariena merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorea da, establezimendu guztien % 35,6 baitira, eta, ondoren, jarduera profesional eta osagarriak (% 16,3) eta eraikuntza (% 12,1) datoz.

Enpleguari dagokionez, lan egiten duten biztanleen % 25,1ek merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorean egiten dute lan; % 24,3k administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasunean, eta % 14,6k jarduera profesional eta laguntzaileetan.

2008tik, establezimendu-kopuruak behera egin du; batez ere, 2009-2013 aldian.

COVID-19aren osasun-pandemiaren ziozko mugikortasun-neurri murriztaileek eragin handia izan dute ekonomian, eta establezimenduen kopuruak % 1,7 egin zuen behera 2020an; % 0,8 2021ean; % 1,1 2022an; % 1,2 2023an; eta % 0,4 2024an, aurreko urteko kopuruekin alderatuta. Ehuneko horiek adierazten dutenez, 2019tik 2024ra bitartean, 4.644 establezimendu galdu dira: azken hamarkadan erregistratutako urteetan, 2024an daude establezimendu gutxien (85.977).

Azken estatistika-datuak pandemiaren aurretik erregistratutakoekin alderatuz gero (2019 urtekoak), gehien eragindako sektoreak merkataritza, garraioa eta ostalaritza izan dira (sektorean, 3.140 establezimendu gutxiago daude, -% 9,2), baita jarduera profesional eta osagarriak ere (1.060 establezimendu gutxiago, hau da, -% 6,9) eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza (386 establezimendu gutxiago, hots, -% 25,5).

Azken sei urteotan, honako sektore hauetan handitu da establezimendu-kopurua: jarduera artistikoetan eta bestelako zerbitzuetan (692 establezimendu gehiago, hau da, +% 9,7);

**INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN
AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,**

administrazio publikoan, hezkuntza eta + % 5,6) eta informazioaren eta komunikazioen osasunean (562 establezimendu gehiago, sektorean (176 establezimendu gehiago, + % 8,9).

2.1.3.1 taula. Establezimendu-kopuruaren bilakaera jarduera-sektorearen arabera, 2019tik 2024ra.


Jarduera	Δ Kop. Establezimenduak 2019- 2024 aldian	Δ Kop. (%) Establezimenduak 2019- 2024 aldian
01. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	-498	-% 25,5
02. Industria, energia eta saneamendua	-431	-% 8,8
03. Eraikuntza	-421	-% 3,8
04. Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	-3.140	-% 9,2
05. Informazioa eta komunikazioak	176	% 8,9
06. Finantza- eta aseguru-jarduerak	-343	-% 13,8
07. Higiezen jarduerak	-181	-% 9,7
08. Jarduera profesional eta osagarriak	-1.060	-% 6,9
09. Adm. publikoa, hezkuntza eta osasuna	562	% 5,6
10. Jard. artistikoak eta bestelako zerbitzuak	692	% 9,7

2.1.3.2 taula. Establezimendu-kopuruaren arabera eta urte arteko aldakuntza (%), jarduera-sektorearen arabera.

Jarduera	2021		2022		2023		2024	
	KOP.	% Δ	KOP.	% Δ	KOP.	% Δ	KOP.	% Δ
01. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1.720	-9,1	1568	-8,8	1.568	-0,1	1.454	-7,2
02. Industria, energia eta saneamendua	4.729	-2,3	4.656	-1,5	4.656	-2,3	4.493	-1,2
03. Eraikuntza	10.834	1,2	10.839	0,0	10.839	-1,9	10.576	-0,6
04. Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	32.665	-1,4	32.065	-1,8	32.065	-2,0	30.938	-1,5
05. Informazioa eta komunikazioak	2.033	2,3	2.077	2,2	2.077	0,3	2.144	2,9
06. Finantza- eta aseguru-jarduerak	2.316	-3,0	2.238	-3,4	2.238	-3,8	2.142	-0,5
07. Higiezen jarduerak	1.788	3,1	1.733	-3,1	1.733	-4,9	1.677	1,8
08. Jarduera profesional eta laguntzaileak	14.721	-1,5	14.568	-1,0	14.568	-2,0	14.213	-0,5
09. Adm. publikoa, hezkuntza eta osasuna	10.041	-0,2	10216	1,7	10.216	1,6	10.550	1,6
10. Jard. artistikoak eta bestelako zerbitzuak	7.319	1,3	7.419	1,4	7.419	2,8	7.790	2,2
Jarduera guztiak	88.166	-0,8	87.379	-0,9	86.338	-1,2	85.977	-1,2

Iturria: Eustat

2.1.3.1 grafikoa. Bizkaiko establezimendu-kopuruaren banaketa langile-kopuruaren arabera (2024).



Establezimenduek lurraldean duten banaketari dagokionez, udalerri bakoitzeko biztanleria kontuan hartuta, batez besteko ratioa 7,6 establezimendukoa da 100 biztanleko, eta balioa antzekoa da Bizkaiko zazpi eskualdeetan.

2.1.3.2 grafikoa ikus daitekeenez, biztanle gehien dauzkaten udalerriak dira, era berean, bestelako sektoreetako zerbitzuak biltzen dituztenak; hala nola, merkataritza, garraioa eta ostalaritza; administrazio publikoa, osasuna eta hezkuntza. Guzti-guztiak daude ahalmen handiko sarearen eraginpeko eremuan.

Aldi berean, biztanleria eta zerbitzuak udalerri desberdinetan metatzeak eragina du bide-sarearen trafiko-ereduan, bidaiak erakartzeko eta sortzeko gune nagusiak baitira. Nabarmentzekoa da ordainpeko bideak hirien egituraketan betetzen ari diren eginkizuna. Izan ere, hirigune handien arteko komunikazioa ahalbidetzen dute, eta aldi berean, denda eta ostalaritzako establezimendu gehien metatzen dituzte. Udalerri horien eta lurraldeko gainerako eremuen arteko komunikazioa seguruagoa eta erosoagoa da ahalmen handiko bide-sareari esker.

Ondoko ataletan, banaka aztertuko da sektore bakoitza.


2.1.3.2 grafikoa. Biztanleria gehien duten udalerriak eta establezimendu-kopurua.

Hurrenke ra	Enplegatutako biztanleria (biz.)		Establezimendu-kopurua			
			Guztira	Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	Industria, energia eta saneamendua	Adm. publikoak, osasuna eta hezkuntza
1	Bilbo	159.146	31.143	10.373	865	4.374
2	Barakaldo	30.239	5.789	2.387	190	567
3	Getxo	18.173	5.794	1.750	119	946
4	Leioa	16.355	2.293	911	97	254
5	Erandio	15.007	2.030	792	131	189
6	Basauri	14.578	2.700	1.250	145	235
7	Galdakao	11.589	1.918	823	136	191
8	Amorebieta -Etxano	11.661	1.533	574	125	114
9	Santurtzi	9.413	2.323	1.001	70	238
10	Portugalete	8.562	2.444	1.087	60	283
BIZKAIA	473.029		85.977	30.938	4.493	10.550


Iturria: Eustat

INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

2.1.3.1 irudia. Enplegatuen kopurua udalerriaren arabera.



2.1.3.2 irudia. Establezimenduen kopurua udalerriaren arabera.



a) Merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorea


2024an, merkataritza, garraio edo ostalaritzaren sektorearekin loturiko establezimenduen kopurua, orotara, 30.938 da, eta 121.717 laguni ematen die lana.

Udalerriaren tamainaren arabera, ratorik handiena 1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerrietan eta hiriburuetan dago. Ratorik txikiena

1.000 biztanletik beherako udalerri txikienetan dago.

Udalerriaren arabera, hona hemen sektorea metatzen dutenak: Bilbo, Barakaldo, Getxo, Basauri, Portugalete, Santurtzi, Leioa, Galdakao, Erandio eta Durango (biztanleria gehien dutenak dira).

2.1.3.3irudia. Sektorean establezimendu-kopuru handiena duten udalerriak (2024).



b) Industriaren, energiaren eta saneamenduaren sektorea


2024. urtean, sektoreak 4.493 establezimendu dauzka guztira, eta 71.232 laguni ematen die lana.

Establezimendu-kopuruaren eta biztanleriaren arteko erlazioa aintzat hartuz gero, 1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerriek ratio handiena daukate: 1,25 establezimendu 100 biztanleko. Bestetik, 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek 0,70 establezimenduko ratioa dute 100 biztanleko.

Beste alde batetik, 50.000 eta 100.000 biztanle arteko udalerriak bizitegi erakoak dira, eta ratio txikiena dute, hau da, 0,18koa 100 biztanleko.

Sektorea biltzen duten udalerrien artean, honako hamar hauek dira nagusiak: Bilbo, Barakaldo, Mungia, Basauri, Galdakao, Erandio, Amorebieta-Etxano, Getxo, Trapagaran eta Arrigorriaga. Udalerri horiek guztiak daude ahalmen handiko sarearen eraginpeko eremuan.

2.1.3.4irudia. Sektorean establezimendu-kopuru handiena duten udalerriak (2024).



c) Administrazio publikoaren, hezkuntzaren eta osasunaren sektorea


Sektore honekin loturiko establezimenduak, guztira, 10.550 dira 2024an, eta 114.707 laguni ematen diete lana.

Establezimendu-kopuruaren eta biztanleriaren arteko erlazioari begiratuz gero, bai hiriburuak (100.000 biztanle baino gehiago), bai 1.000 biztanletik beherako udalerriek, gutxi gorabehera, 1,2 establezimenduko ratioa dute

100 biztanleko. Beste alde batetik, 20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerriek dute ratorik txikiena, hau da, 0,64 establezimendukoa 100 biztanleko.

Sektoreko establezimendu gehien dauzkaten udalerrien artean, honako hamar hauek 10 nagusiak: Bilbo, Getxo, Barakaldo, Durango, Portugalete, Leioa, Santurtzi, Basauri, Mungia eta Galdakao.

2.1.3.5 irudia. Sektorean establezimendu-kopuru handiena duten udalerriak (2024).



2.4 JOAN-ETORRIETAKO SEGURTASUNA

Errepideetako istripu-tasak inpaktu nabarmena dauka gizartean, eta osasun publikoari dagokion arazotzat jotzen da; bereziki, gazteen kasuan. Euskal Autonomia Erkidegoan, 5 eta 29 urte arteko haur eta gazteen heriotza-kausa nagusia izan ziren trafiko-istripuak, Eusko Jaurlaritzak 2021ean argitaratutako datuen arabera.

Euskal Estatistika Erakundearen azken estatistika-datuen arabera, mugikortasunari dagokionez, 2022an 10.549 istripu izan ziren; 2021ean erregistratutakoekin alderatuz gero (9.529), 1.020 istripu gehiago egon ziren Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetan.

Trafiko-istripuek ondorio txar ugari dauzkate bai gizartean, bai ekonomia-arloan. Kostu materialez, ospitaleko gastuez, errehabilitazioko gastuez eta biktimen lesioekin lotutako laneko gastuez gainera, aintzat hartu behar da eragindakoaren familia- eta gizarte-ingurunea.

Euskadiko errepideetan, 2022an, guztira 9.710

istripu erregistratu ziren errepidean, aurreko urtean baino % 1,9 gehiago. Istripuetan, 5.251etan ez zen biktimarik izan, baina 4.459tan bai (% 54,1 eta % 45,9, hurrenez hurren). Halaber, garrantzitsua da nabarmentzea istripuetan 44 hildako, 469 zauritu larri eta 5.268 zauritu arin izan zirela 2022an.

2023an, berriz, Euskadiko errepideetan 45 lagun hil ziren trafiko-istripuetan, 2022an baino bat gehiago, urte horretan izandako 44 istripuetan. Aztergai ditugun azpiegituren segurtasuna eta Bizkaiko gainerako bideen segurtasuna eratzeko asmoz, Bizkaiko lurraldetik kanpo gertatzen diren istripuak ere aintzat hartzen dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak 2023an argitaratutako "Bizkaiko errepideetako trafikoaren bilakaera" dokumentuaren arabera, Bizkaiko bide-sarea bost kategoriatan zatitzen da:

- Lehenetasunezko Sarea (Gorria), 2022an mugikortasun globalaren % 58,9 hartzen duena eta 229,3 km luze dena;

INTERBIAK SOZINETATEAK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

- Oinarrizko Sarea (Laranja), mugikortasunaren % 24,8 inguru hartzen duena eta 188,7 km luze dena;
- Sare Osagarria (Urdina), 50,6 km luze dena eta mugikortasun osoaren % 4 hartzen duena;
- Eskualdeko Sarea (Berdea), 173,2 km luze dena eta mugikortasunaren % 4,6 hartzen duena, eta, azkenik,
- Tokiko Sarea (Horia), mugikortasunaren % 7,8 kudeatzen duena eta 605,4 km luze dena.

2.4.1 BIDE-SAREKO ISTRIPU-TASAREN AZTERKETA

2.4.1.1 taulan, biktimak, zaurituak eta hildakoak izan diren istripuen kopurua jasoi da, bise-sareen tipologiaren arabera.

Atal honetan, analisirako erabili diren istripu-tasei buruzko datuak Eusko Jaurlaritzak argitaratutako "Euskadiko trafiko-istripuei buruzko 2023ko estatistika-urtekaria" delakotik atera dira.

Lehentasunezko sarean izan dira biktimak eragindako istripu gehienak (425), hots istripu

guztien % 41 eta biktima guztien % 37 (441) gertatu dira sare horretan.

Alabaina, istripu-tasei buruzko datuak bide-sareen artean konparatzeko modukoak izan daitezten, bestelako aldagaiak izan behar ditu kontuan azpiegituren segurtasunari buruzko azterketak, hala nola sarearen luzera edo bertatik igarotzen den zirkulazioa. Horretarako, oinarrizko istripu-adierazleak kalkulatu dira; besteak beste, Arrisku-tasa (A_T) edo Heriotza-tasa (H_T)

2.4.1.1 taula. Istripu-tasaren banaketa, bide-sare motaren arabera. 2023. urtea.

Bide-sarea (GUZTIRA)	Luzera (km)	Biktimadun istripuak		Biktimak				
		B.is.	%	Hildakoa k	Z. larriak	Z. arinak	Guztira	%
Lehentasunezko Sarea	230,9	425	% 41	4	33	608	645	% 37
Oinarrizko Sarea	188,7	239	% 23	4	52	551	607	% 35
Sare osagarria	50,6	76	% 7	0	5	99	104	% 6
Eskualdeko Sarea	173,2	121	% 12	0	15	140	155	% 9
Tokiko Sarea	603,1	179	% 17	0	19	218	237	% 14
GUZTIRA	1.246,5	1040	% 100	8	124	1.616	1.748	% 100

Indizeak kalkulatzeko, honako formula hauek erabiltzen dira:

$$I_P = \frac{N_P \cdot 10^8}{365 \cdot L \cdot IMD}$$

$$I_M = \frac{M \cdot 10^9}{365 \cdot L \cdot IMD}$$

Azalpena:

L = Aztertutako tartearen luzera

EBBI (IMD) = Tarte horrekin lotutako urteko batez besteko ibilg./egun

N_P = biktimadun istripuak

H (M) = hildakoak

L (G) = biktima larriak

Aurreko formulako izendatzailea ($365 \times L \times \text{EBBI}$) tartearen mugikortasuna da, ibilgailu/km/urteetan neurtuta.

I_P adierazpenaren bidez (euskaraz A_T),

biktimadun istripuen kopurua ematen da ehun milioi ibilgailu-km/urte; I_M balioak (euskaraz H_T) hildakoen kopurua adierazten du ehun milioi ibilgailu-km/urte.

Bizkaiko bide-sarearen batez besteko mugikortasuna, 2022an, 4.536,7 MM ibil.-km-koa izan zen urteko, non Ahalmen Handiko Sareak 3.204,9 MM ibil. hartzen baititu km-ko eta urteko. Bide-sarearen 2022ko batez besteko arrisku-tasa 20,4koa izan zen, eta, urte horretan, ahalmen handikoak 14,38ko arrisku-tasa izan zuen, oinarrizkoak 20,12koa eta osagarriak 34,88koa. Balio gorena eskualdeko sarean (urdina) ($A_T=58,68$) eta tokiko sarean (horia) ($A_T=36,67$) dago.

Bide-sare osorako kalkulatu den batez besteko heriotza-tasa 6,6koa da. Halaber, Lehentasunezko Ahalmen Handiko Sareak du indize altuena (4,12), oinarrizko gainerako

sarean erregistratutako $H_T = 0,89$ indizearen aldean.

Horrek esan nahi du Bizkaiko errepide-sareko ahalmen handiko bideak (autobideak, autobiak eta bereizitako galtzadak dituzten errepideak) lagungarriak direla segurtasuna handiagoa izan dadin, errepide arrunten aldean; izan ere, errepidera sartzen direnen kopurua mugatzen da, eta, ondorioz, gatazka izan dezakeen trafikoa ere. Halaber, haren ezaugarri teknikoak bide-sareko gainerako bideenak baino handiagoak dira.

Horren ondorioz, ezbeharren kopuru txikiagoa da, bertatik dabiltzan ibilgailuen mugikortasuna kontuan hartuta.

Parametro horiek ordainpeko autobideetan kalkulatz gero (AP-8 autobidea Usansoloren eta Gipuzkoarekiko mugaren artean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea eta Artxandako Tunelak), Bizkaiko Ahalmen Handiko Sareko batez bestekoetatik beherako balioak ageri dira.

2.4.1.2 taula. Arrisku-tasa eta heriotza-tasa, bide-sarearen arabera. 2023. urtea.

Bizkaiko bide-sarea (GUZTIRA)	Luzera (km)	EBBI (ibil./eg.)	Mugikortasuna Ibil. kop.-km/urte (MM)	B.Is.	Biktimak		Adierazleak	
					Hildakoak	Z. larriak	AT	HT
Lehentasunezko Sarea	230,9	31.702	2.671,50	425	4	33	15,9	1,50
Oinarrizko Sarea	188,7	16.175	1.114,10	239	4	52	21,4	3,59
Sare osagarria	50,6	9.862	182,1	76	0	5	41,7	0
Eskualdeko Sarea	173,2	3.315	209,6	121	0	15	57,7	0
Tokiko Sarea	603,1	1.542	339,4	179	0	19	52,7	0
Bide-sarea GUZTIRA	1.246,5	9.928	4.516,70	1.040	8	125	23,0	1,8



3 Mugikortasunaren azterketa eta trafikoaren bilakaera

3.1 TRAFIKOA ETA TARTEEN ARABERAKO BANAKETA. 2024. URTEA

3.1.1. HAZTATURIKO BATEZ BESTEKO INTENTSITATEA. IBILGAILU MOTAREN ARABERAKO OSAERA

3.1.1.1 AP-8 autobidea: Usansolo – Gipuzkoarekiko muga

Trafikoaren haztaturiko batez besteko intentsitatea, Urgoiti–Gipuzkoarekiko mugako tartean eta 2024. urtean, eguneko 35.933 ibilgailukoa izan da, egunero 4.033 ibilgailu astunekin; horrenbestez, ibilgailu astunen batez besteko osaketa % 11,2koa izan da.

Tarifen aldetik, bi ibilgailu astun bereizten dira:


- **Astunak 1:** Pneumatiko bikoitzeko atoaia duten turismoak eta furgonetak, eta 3 ardatzerainoko kamioiak eta autobusak
- **Astunak 2:** 2 ardatzeko edo gehiagoko atoaia duten turismoak eta furgonetak, eta lau ardatzeko edo gehiagoko kamioiak eta autobusak.

Ondoko taula eta grafiko hauetan ageri da haztaturiko batez besteko trafikoaren ibilgailu-motaren arabeko osaketa:

3.1.1.1 grafikoa. Batez besteko trafikoaren banaketa, ibilgailu motaren arabera. 2024. urtea.

Ibilgailu mota	Ibil./egun	%
Arinak	31.900	% 88,8
Astunak 1	1.519	% 4,2
Astunak 2	2.514	% 7,0

GUZTIRA	35.933	100
----------------	---------------	------------



Ibilgailu-mota	2022 eta 2024 arteko aldak. (%)
Arinak	+% 1,3
Astunak 1	+% 0,04
Astunak 2	+% 2,7
GUZTIRA	% 1,4

2024. urtearekin alderatuta, ibilgailuen zirkulazioak % 1,4 egin du gora, baina ez ditu berreskuratu COVID-19ak eragindako osasun-pandemiaren aurretiko balioak. Zentzu horretan, gogoratu beharra dago 2019an EBla 35.343 ibilgailu/egunekoa izan zela urtean.

Ibilgailu-motaren arabera sailkapenean, ibilgailu arinen kopuruak 400 ibilgailu egin ditu gora. Ibilgailu astunen aldea, berriz, honako hau izan da: Astunak 1 kategoriak 67 ibilgailu gehiago izan ditu, eta Astunak 2 kategoriak 12 ibilgailu bat gehiago.

3.1.1.2 Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean, haztaturiko batez besteko eguneko intentsitatea, 2024. urtean, 12.447 ibilgailukoa izan da, egunero 3.518 ibilgailu astunekin; horrenbestez, ibilgailu astunen batez besteko osaketa % 28koa izan da.


Usansolo–Gipuzkoarekiko muga tartean bezala, tarifen aldetik, ibilgailu astunen bi mota hartu dira kontuan:

- **Astunak 1:** Pneumatiko bikoitzeko atoa duten turismoak eta furgonetak, eta 3 ardatzerainoko kamioiak eta autobusak.
- **Astunak 2:** 2 ardatzeko edo gehiagoko atoa duten turismoak eta furgonetak, eta lau ardatzeko edo gehiagoko kamioiak eta autobusak.

Ondoko taula eta grafiko hauetan ageri da haztaturiko batez besteko trafikoaren ibilgailu-motaren arabera osaera:

3.1.1.2 grafikoa. Batez besteko trafikoaren banaketa, ibilgailu motaren arabera. 2024. urtea.

Ibilgailu-mota	Ibil./egun	%
Arinak	8.929	% 72
Astunak 1	495	% 4
Astunak 2	3.023	% 24
GUZTIRA	12.447	100



INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

Ibilgailu-mota	2023 eta 2024 arteko aldak. (%)
Arinak	+% 8,8
Astunak 1	+% 21,6
Astunak 2	+% 21,8
GUZTIRA	+% 12,1

AP-8 autobidean bezala, guztizko ibilgailuen batez besteko trafikoak gora egin du, 2023. urtearekin alderatuz gero: egunean 1.348 ibilgailu gehiago ibili dira, 719 ibilgailu arin eta 630 ibilgailu astun inguru.

Horietatik, azpiegitura hau erabiltzen duten II. motako ibilgailu astunen ehunekoa askoz handiagoa da Artxandako Tuneletan edo AP-8an erregistratutakoa baino: ehunekoak AP-8ko % 6,64tik Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideko % 22ra egin du gora.

Izan ere, Hegoaldeko Irtenbidetik (A-8) ibiltzeko debekuak gehienez ere 3,5 tonako zama eraman dezaketen kamioiei eragiten die, eta, hortaz, Hegoaldeko Saihesbidea erabili behar dute. Hala ere, debeku horrek ez dio eragiten ibilgailu astunen kopuru handi bati (6 eta 7 metro bitarteko luzera dutenei), ezta autobusei ere, eta horiek Hegoaldeko Irtenbidea erabiltzen jarraitzen dute, bidesariaren disuasio-izaera dela eta.

3.1.1.3 Artxandako Tunelak


Artxandako Tuneletan haztaturiko batez besteko eguneko intentsitatea, Txorierriko ordainlekuaren hesian erregistratutako datuetan oinarrituta, 18.935 ibil./egunekoa izan da 2024an, eta horien % 3,08 ibilgailu astunak izan dira (584 ibil./eg.).

Txorierriko ordainlekuan, ibilgailuen joan-etorriak % 4,3 egin du gora 2023. urtearekin alderatuta, hau da, egunean 807 ibilgailu baino gehiago ibili dira.

Batez besteko trafikoaren ibilgailu-motaren arabera osoa ondorengo taulan eta grafikoan adierazten da..

3.1.1.3 grafikoa. Batez besteko trafikoaren banaketa, ibilgailu-motaren arabera. 2024. urtea.

Ibilgailu-mota	Ibil./egun	%
Turismoak, bi ardatz eta lau gurgpileko ibilgailu industrialak	18.351	% 96,92
Bi ardatz baino gehiagoko autobusak eta kamioiak	8	% 0,04
Bi ardatzeko mikrobusak eta autobusak	576	% 3,04
GUZTIRA	18.935	100



3.1.2 TRAFIKOAREN BANAKETA TARTEAREN ETA LOTURAKO ADARRAREN ARABERA

3.1.2.1 AP-8 autobidea: Usansolo – Gipuzkoarekiko muga

3.1.2.1.a grafikoa, autobidearen enborreko tarteetako trafikoaren banaketa ageri da, baita loturako adarrek izan duten parte-hartzea ere, 2024. urteari dagokionez.

Erletxe–Borua Mendebaldea (3,13 KP) tartean, eguneko intentsitatea 48.718 ibilgailukoa izan da eguneko; Ermua–Gipuzkoarekiko mugako tartean (2,40 KP), berriz, 23.107koa.

Iurretako enborreko hesia zeharkatzen duen trafikoak 28.784 ibilg./egunekoak izan da 2024an (ibilgailu astunak % 11,8 izan dira; guztira, 3.379 ibilgailu astun eguneko). 2023an erregistratutako balioekin alderatuta, % 1,9ko igoera egon da ibilgailuetan oro har (543 ibil. gehiago eguneko), eta % 3,3ko igoera ibilgailu astunetan (107 ibilgailu gehiago eguneko).

Zirkulazioaren noranzkoari begiratzuz gero, trafikoaren bolumena oso antzekoa da bi noranzkoetan.


Gipuzkoako LHa eguneko 23.107 ibilgailuk zeharkatzen dute, hau da, ibilgailu astunen % 16,2k. Batez besteko trafiko hori, aurreko urtearekin alderatuta, eguneko gutxienez 224 ibilgailutan gehitu da, baina erregistroak 2019an erregistratutako trafikoaren azpitik daude oraindik (23.241 ibilgailu eguneko).

Gipuzkoarekiko muga eguneko zeharkatzen duten 23.107 ibilgailu horien % 6,6 Ermuarekiko loturak dira; % 8,3 Abadiñorekiko erlazioak dira, eta % 7,9 lurresa Ekialdearekiko loturak dira. Hortaz, gainerako % 77,2k Bilbo eta metropoli-eremuarekiko loturetan zeharkatzen dute Iurretako enborreko hesia.


Ibilgailu astunei dagokionez, Gipuzkoako muga eguneko zeharkatzen duten 3.783 ibilgailuetatik % 10 Ermuarekiko loturak dira; % 9,9 Abadiñorekiko loturak dira eta % 9,3 lurresa Ekialdearekiko loturak dira. Beraz, gainerako % 70,8k ibilbide luzeko trafiko gisa zeharkatzen dute Iurretako enborreko hesia (2.678 ibil./egun).

3.1.2.1.a grafikoa. Gipuzkoako lurralde historikoa zeharkatzen duen trafikoaren ezaugarriak.

Ibilgailuak guztira: 23.107 ibilg./egun



Ibilgailu astunak: 3.783 ibilg./egun



INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

lurretatik mendebalderantz, autobidearen enborreko trafikoa areagotu egiten da sistema irekiko lotura-adarretako trafiko-ekarpenen bidez. Autobidearen enborreko trafikoa 48.718 ibilg./egunekoa da (astunak: % 9,9) Erletxe-Boroa Mendebaldea tartean: lurreta Mendebaldean, 12.048 ibilg./egun; Amorebieta Ekialdean, 3.371 ibilg./egun; Boroa Ekialdeko lotunean, 1.131 ibilg./egun; eta Boroa Mendebaldeko lotunean, 12.387 ibilg./egun.

2024an, eguneko batez besteko trafikoak gora egin du autobidearen tarte guztietan: guztizko ibilgailuetan, hazkunde-tasa % 1,4koa izan da, eta ibilgailu astunena % 2,9koa.


Erletxeko eta Boroa Mendebaldeko lotuneen arteko tarteak izan zuen trafiko-jaitiera handiena 2020an, 2019an baino 12.000 ibilgailu gutxiago erregistratu baitziren egunean. 2022an, trafiko-bolumena eguneko 46.438 ibilgailuraino igo zen, eta 2023an hazten jarraitu zuen, 47.729 ibilgailura iritsiz. 2024an, eguneko 48.718 ibilgailu izan dira, hau da, aurreko urtean baino % 2,1 gehiago. Suspertze hori gorabehera, tarte horretako

trafikoa pandemiaren aurretik izandako trafikoa baino % 1,3 txikiagoa da oraindik.

N-637 errepideak edo Txorierriko korridoreak ere mugikortasun-mugaketen eragin handia jasan zuen, baina trafikoaren zati bat berreskuratu du. Hala, 2024an, batez beste 500 ibilgailu gehiago ibili dira egunean Txorierri Ekialdeko (lurreta-Gipuzkoa) eta Txorierri Mendebaldeko lotuneetan, aurreko urtearekin alderatuta. Guztira hartuta, bi lotuneek 34.438 ibilgailuko guztizko trafikoa erregistratu dute egunean, eta balio hori 2019an egunean erregistratutako 36.804 ibilgailuetara hurbiltzen ari da.

Urgoiti eta Erletxe arteko autobidearen enborreko trafikoa 37.733 ibilgailukoa da eguneko, eta ibilgailu astunena % 10,3koa. Guztizko balioetan aztertuta, aurreko urteko trafikoaren ia berdina da. Urgoitiko lotuneak 18.970 ibilgailu ekarri ditu Bilborako noranzkoan, eta 7.875 ibilgailu Txorierri/Gipuzkoarako noranzkoan, egunean. Hurrenez hurren, ibilgailu astunen tasak % 9,9koa eta % 8,7koa dira.

3.1.2.1.b grafikoa. Trafikoaren banaketa AP-8 errepidean. 2024. urtea.




INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN
AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,


3.1.2.1 taula. Trafikoaren banaketa AP-8 errepidearen enborrean, tartearen eta ibilgailu-motaren arabera.

Tarteak	Luzera (km)	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztira		
					EBBI	Astunak	% Astunak
Urgoiti–Erletxe	2,47	33.859	1.703	2.171	37.733	3.874	% 10,3
Erletxe–Boroa Mendebaldea	3,13	43.892	2.119	2.707	48.718	4.826	% 9,9
Boroa Mendebaldea–Boroa Ekialdea	1,14	32.619	1.512	2.200	36.330	3.712	% 10,2
Boroa Ekialdea–Amorebieta Ekialdea	2,56	33.627	1.558	2.276	37.461	3.834	% 10,2
Amorebieta Ekialdea–lurreta	8,2	36.656	1.693	2.484	40.833	4.177	% 10,2
lurreta–Abadiño	3,5	33.833	1.658	2.937	38.428	4.594	% 12,0
Abadiño–Ermua	7,52	23.359	1.249	2.489	27.097	3.738	% 13,8
Ermua–LHM (Gipuzkoa)	2,4	19.371	1.135	2.601	23.107	3.736	% 16,2
GUZTIRA	30,92	31.870	1.564	2.515	35.949	4.079	% 11,35

3.1.2.2 grafikoa. Trafikoaren banaketa tartearen eta ibilgailu-motaren arabera.




3.1.2.3 grafikoa. Analisi konparatiboa tartearen arabera (hazkundearen % 2023–2024 aldian).




3.1.2.2 taula. Trafikoa lotuneetan eta ordainpeko hesietan.

	Tartea	Kontrol-sistema	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztira		
						EBBI	Astunak	Astunak (%)
1	Urgoiti Mendebaldea	ADAR ASKEAK	17.091	802	1.077	18.970	1.879	% 9,91
2	Urgoiti Ekialdea	ADAR ASKEAK	7.189	343	343	7.875	685	% 8,70
3	Txorierrri / Erletxe M.	ADAR ASKEAK	11.152	500	682	12.334	1.182	% 9,58
4	Erletxe E.	ADAR ASKEAK	21.185	915	1.219	23.319	2.134	% 9,15
5	Boroa M.	SISTEMA IREKIA	11.273	607	507	12.387	1.114	% 9,00
6	Boroa E.	ADAR ASKEAK	1.008	47	76	1.131	123	% 10,85
7	Amorebieta E.	ADAR ASKEAK	3.029	135	208	3.371	342	% 10,16
8	Iurreta M.	SISTEMA IREKIA	11.251	529	269	12.048	798	% 6,62
9	Iurretako hesia	SISTEMA ITXIA	25.405	1.164	2.215	28.784	3.379	% 11,74
10	Iurreta E.	SISTEMA ITXIA	8.428	493	722	9.643	1.215	% 12,60
11	Abadiño M.	SISTEMA ITXIA	13.590	594	725	14.909	1.319	% 8,85
12	Abadiño E.	SISTEMA ITXIA	3.116	186	277	3.578	463	% 12,94
13	Ermua M.	SISTEMA ITXIA	5.472	258	91	5.820	348	5,99%
14	Ermua E.	SISTEMA ITXIA	1.483	143	203	1.830	346	% 18,92


3.1.2.4 grafikoa. Sistema itxiko trafikoa.



3.1.2.5 grafikoa. Sistema itxiko trafikoa.



3.1.2.6 grafikoa. Adar askeetako trafikoa.



3.1.2.2 Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea

2024. urtean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean eguneko batez besteko intentsitate haztatua 12.447 ibilgailukoa izan da eguneko, eta ibilgailu astunen ehunekoa % 28,3koa (3.518 ibilgailu eguneko). 2023an erregistratutako balioekin alderatuta, guztizko ibilgailuek % 12,1eko igoera izan dute, eta ibilgailu astunek, berriz, % 21,7koa.

Saihesbidea zerbitzuan jarri zenetik, noranzkoen arabera banaketa ez da orekatua; hau da, Gipuzkoarako noranzkoan, Kantabriarako noranzkoan baino trafiko handiagoa dago; beraz, interesgarria da fluxuak zirkulazio-noranzkoen arabera bereiztea.

Gipuzkoarako noranzkoan, guztira, 2024. urtean, 6.753 ibilgailukoa izan da haztaturiko batez besteko balioa eguneko; hots, trafiko osoaren % 54,2. Kantabriarako noranzkoak, berriz, batez beste, 5.695 ibilgailuko trafiko haztatua du eguneko; hau da, trafiko osoaren % 45,8.

2020an, mugikortasun-mugaketek gehien ukitu zuten noranzkoa Gipuzkoarako izan zen; batez ere, ibilgailu arinen trafikoak behera egin zuelako (-% 34,0), eta, Kantabriarako noranzkoan, batez besteko trafikoak -% 26,0 egin zuen behera.

2021ean, trafikoak gora egin zuen aurreko urtearen aldean (+% 16,5 Kantabriarantz, eta +% 19,6 Gipuzkoarantz), eta 2016ko antzeko balioak erregistratu ziren; hau da, 2019an baino 1.800 ibilgailu gutxiago egunean.

2022an, zirkulazioak suspertzen jarraitu zuen 2021arekin alderatuta (+%10,4 Gipuzkoarako

noranzkoan eta 4,8 Kantabriarako noranzkoan).

2023an, aldiz, % 9ko murrizketa gertatu zen Gipuzkoarako noranzkoan, eta % 4ko igoera Kantabriarako noranzkoan; bi norabideetan, ibilgailu astunen jaitsiera jazo zen.

Aitzitik, 2024an, % 12,7ko igoera izan zen Gipuzkoarako noranzkoan, eta % 11,7koa Kantabriarako noranzkoan. Trafikorik arinena duen tartea Peñascaletik AP-68 autobiderainokoa da (Kantabriarantz) 3.715 ibilgailukoa dela egunean.

Ibilgailu astunei dagokienez, batez besteko zirkulazio haztatua Gipuzkoarako noranzkoan 1.891 ibilgailu astunekoa da egunean (ibilgailu astunen trafiko osoaren % 53,7), eta % 22,7ko igoera erregistratu da aurreko urteko datuen aldean. Kantabriarako noranzkoan, batez beste, 1.627 ibilgailu astun ibiltzen dira eguneko (astun guztien % 46,3), eta balio hori % 20,6 igo da aurreko urtearen aldean.

Gipuzkoako noranzkoa zehatz-mehatz aztertuta, MHSaren enborrak 3.552 ibilgailuko intentsitatea dauka batez beste egunean, ibilgailu astunak % 22,7 direla.

Santurtziko lotunetik 783 ibilgailuko ekarpena egiten da egunean, hau da, Santurtziko lotunetik Trapagarango lotunera doan tartean, 5.659 ibilgailu dabilta egunean.

Tarte horretatik aurrera, Ezkerraldeko (Trapagarango lotunea) datozen ibilgailuak sartzen dira. Guztira, 1.153 ibilgailu dabilta egunean, eta astunen trafikoak % 14,8koa da.

Hala, autobidearen enborreko zirkulazioa areagotzen da, Trapagaran-Bilbo Hegoaldea tartean 8.053 ibilgailukoa dela, horietatik % 25,9 astunak. Trafiko hori Ugarteko enborreko hesiaren parean doa, Peñascalerantz.

Bilbo Hegoaldea lotunetik aurrera, autobidearen enborreko trafikoak eguneko 8.863 ibilgailuko balioa du batez beste, horietatik % 28,7 ibilgailu astunak direla. Astunak Peñascal-AP-68 tartean (4.459 ibilgailu eguneko) eta Bilbo Hegoalde-Bilbo Ekialde lotunean (4.224 ibilgailu eguneko) banatzen dira, astunen % 36,4 eta % 20,5, hurrenez hurren.

Kantabriarako noranzkoan, Peñascaleko lotunea - Bilbo Hegoaldea tartea 7.267 ibilgailuko zirkulazio-bolumena du eguneko, eta ibilgailu astunak % 29,0 dira. Trafiko hori MHS 1etik (Larraskitu-Peñascal) dator, guztira 3.552 ibilgailu eguneko, eta MHS 1b (AP-68 - Peñascal) bidetik, guztira 3.715 ibilgailu eguneko.


Bilbo Hegoaldeko lotunea gainditutakoan,

autobidearen enborreko trafikoa pixka bat murrizten da, eta batez besteko balioa 6.855 ibilgailukoa da eguneko, ibilgailu astunak % 28,1 direla. Horiek Ugarteko enborreko hesia zeharkatzen dute Ezkerralderako eta Kantabriako mugarako noranzkoan.

Trapagarango lotunetik mendebalderantz, hots El Haya - San Fuenteserantz, autobidearen enborreko trafikoak nabarmen egiten du behera, eta ohiko egun bateko guztizko balioa 5.629 ibilgailukoa da, ibilgailu astunak % 30,2 izanik Trapagarango lotunearen eta Santurtziko lotunearen artean. Azkenik, Santurtziko lotunearen eta Ortuellako lotunearen artean, Kantabriarako noranzkoan, 4.860 ibilgailu erregistratu dira eguneko, ibilgailu astunak % 32,6 izanik.

Honako grafiko eta taula hauetan, azpiegitura berriko tarte batzuetako eta besteetako trafikoaren banaketa ageri da, baita loturako adarren ekarpenak ere, 2024. urtean.

3.1.2.7 grafikoa. MHS autobideko trafikoa.




INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN
AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

3.1.2.3 taula. Trafikoaren banaketa MHSko enborrean, tartearen arabera.

Tarteak	Luzera (km)	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztira		
					EBBI	Astunak	Astunak (%)
Larraskitu (Bilbo Ekialdea)–Peñascal	1,4	2747	232	573	3.552	805	22,7
AP-68–Peñascal (MHS 1B)	3,9	2.412	188	1.115	3.715	1.303	35,1
Peñascal–Kadagua (Bilbo Hegoaldea)	2,7	5.159	420	1.688	7.267	2.108	29,0
Bilbo Hegoaldea–Trapagarango L.	7,2	5.010	300	1.545	6.855	1.845	26,9
Trapagarango L.–Ortuella	2,3	4.041	242	1.346	5.629	1.588	28,2
Ortuella–Kantabria	2,0	3.409	183	1.268	4.860	1.451	29,9
Bilbo Ekialdea–Kantabria guztira	19,4	4.068	270	1.357	5.695	1.627	28,6
Kantabria–Ortuella	2,0	4.149	154	1.566	5.869	1.720	29,3
Ortuella–Trapagarango L.	2,3	4.861	206	1.637	6.704	1.843	27,5
Trapagarango L.–Bilbo Hegoaldea	7,2	5.957	255	1.823	8.035	2.078	25,9
Kadagua (Bilbo Hegoaldea)–Peñascal	2,7	6.195	357	2.131	8.683	2.488	28,7
Peñascal (MHS, 1B)–AP-68	3,9	2.838	123	1.498	4.459	1.621	36,4
Bilbo Hegoaldea–Bilbo Ekialdea	1,4	3.358	233	633	4.224	866	20,5
Ortuellako L.–Bilbo Ekialdea guztira	19,4	4.862	225	1.666	6.753	1.891	28,0
MHS GUZTIRA	19,4	8.930	495	3.023	12.448	3.518	28,3

3.1.2.8 grafikoa. Trafikoaren banaketa tarteka eta ibilgailu-motaka, zirkulazioaren noranzkoaren arabera.



3.1.2.9 grafikoa. Analisi konparatiboa tartearen arabera (hazkundearen % 2023–2024 aldian).




3.1.2.4taula. Trafikoa loturetan eta ordainlekuko hesietan (ibilg./egun).

SARRERAK	Arinak	Astunak	EBBI	Astunak (%)
Kantabria	3.886	999	4.885	% 20
Santurtzi	989	849	1.838	% 46
Trapagaran	1.098	236	1.334	% 18
Bilbo Hegoaldea	2.062	750	2.812	% 27
Bilbo Hegoaldea - Mendebaldea	1.051	249	1.300	% 19
Bilbo Hegoaldea - Ekialdea	1.011	501	1.512	% 33
AP-68	2.418	1.306	3.725	% 35
Bilbo Ekialdea	2.755	807	3.562	% 23


IRTEERAK	Arinak	Astunak	EBBI	Astunak (%)
Kantabria	3.409	1.451	4.860	% 30
Ezkerraldea (Trapagaran + Santurtzi)	1.605	395	2.000	% 20
Santurtzi	507	159	666	% 24
Trapagaran	1.098	236	1.334	% 18
Bilbo Hegoaldea	1.974	604	2.577	% 23
Bilbo Hegoaldea - Mendebaldea	773	91	864	% 11
Bilbo Hegoaldea - Ekialdea	1.201	512	1.713	% 30
AP-68	2.412	1.303	3.715	% 22
Bilbo Ekialdea	2.747	805	3.552	% 37

INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

3.1.2.10 grafikoa. Sarrerako trafikoaren bolumena.



3.1.2.11 grafikoa. Irteerako trafikoaren bolumena.



3.1.2.3 Artxandako Tunelak

Honako grafiko eta taula hauetan, trafikoak tunel batzuetan eta besteetan izandako banaketa aurkezten da, 2024. urtea kontuan hartuta.

Txorierriko ordainlekua egunean zeharkatzen duten 18.580 ibilgailuetatik, egunean 13.473 ibilgailuk Salbe-Txorierrri tunela erabiltzen dute: egunean 6.873 ibilgailuk (% 74,0) Bilbora sartzeko, eta egunean 6.600 ibilgailuk (% 71,0) Txorierrirako noranzkoan. 2023ko balioekin alderatuta, Salbe-Txorierrri tuneleko urteko batez besteko trafikoak % 1,8 egin du gora. Bi noranzkoek antzeko igoera izan dute: gutxi gorabehera, 270 ibilgailu gehiago noranzko bakoitzean, eguneko. 2019. urtearekin alderatuta, 2024an tunel horretako trafikoak % 5,8 azpitik

jarraitzen du: % 4,5 gutxiago Bilborako noranzkoan eta % 7,1 gutxiago Txorierrirakoan. Ugasko-Txorierrri tunelak batez beste 5.107 ibilgailuko erregistroa dauka egunean. Haietatik egunean 2.415 ibilgailuk (% 26,0) Bilbora sartzeko erabiltzen dute tunela, eta egunean 2.692 ibilgailuk (% 29,0) Txorierrirako noranzkoan.

Horrek esan nahi du tunel bien arteko banaketa 73 / 27 dela, gutxi gorabehera.


Aurreko urteko datuekin alderatuta, tunel honetako urteko batez besteko trafikoak % 4,4 igo da: % 2,5 Ugaskorako noranzkoan, eta % 8,4 Bilbotik irteteko trafikoan; hau da, 215 ibil./eguneko igo da, bi noranzkoak batuta. Kasu

horretan ere, trafikoa % 17,5 murriztu da 2019tik 2024ra.

Salbe–Ugasko tunelaren eguneko batez besteko trafikoa 7.767 ibilgailukoa da. Horietatik 3.895 ibilgailuk (% 50,1) Ugaskorako noranzkoan

erabiltzen dute egunean, eta 3.872 ibilgailuk (% 49,9) Salberako noranzkoan. Tunel horretako urteko batez besteko trafikoa % 7,0 handitu da 2021eko datuekin alderatuta: % 6,7 Ugaskorako noranzkoan, eta % 5,9 Salberako noranzkoan.

3.1.2.12 grafikoa. Trafikoaren bilakaera Artxandako tuneletan. 2024. urtea.




3.1.2.5 taula. Trafikoaren banaketa Artxandako tuneletan, tartearen arabera Urteko ohiko eguneko ibilgailuak. 2024. urtea.

Tunela	Guztizkoak		Bilborantz		Txorierriarantz	
	Ibil./egun	%	Ibil./egun	%	Ibil./egun	%
Salbe–Txorierri (BI-626)	13.473	72,5	6.873	74,0	6.600	71,0
Ugasko–Txorierri (BI-627)	5.107	27,5	2.415	26,0	2.692	29,0
Txorierriko ordainlekua	18.580	100	9.288	50,0	9.292	50,0


Tunela	Guztizkoak		Ugaskorantz		Salberantz	
	Ibil./egun	%	Ibil./egun	%	Ibil./egun	%
Salbe–Ugasko (BI-625)	7.767	100	3.895	50,1	3.872	49,9

INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN
AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

**3.1.2.13 grafikoa. Trafikoaren banaketa Artxandako tuneletan, noranzkoaren arabera.
Urteko ohiko eguneko ibilgailuak. 2024. urtea.**



**3.1.2.14 grafikoa. Trafikoaren banaketa Artxandako tuneletan, noranzkoaren arabera.
Urteko ohiko eguneko ibilgailuak (BI-625). 2024. urtea.**



3.1.3 TRAFIKOAREN HILEKO BILAKAERA

3.1.3.1 AP-8 autobidea: Usansolo–Gipuzkoarekiko muga

Hurrengo tauletan, Usansoloren eta Gipuzkoarekiko mugaren arteko tartean eguneroko batez besteko trafikoak hilean duen banaketa ageri da.

Guztizko trafikoak % 1,3 igo da, 2023. urtearekin alderatuta: ibilgailu arinetan % 1,2 hazi da, eta ibilgailu astunetan, aldiz, % 2,2. Hala, erregistratutako guztizko trafikoan, portzentaje-igoera handiena 2022ko lehenengo hilabeteetan gertatu zen, maiatzarekiko aldea % 8,1ekoa izatera iritsi zela. Martxoan, ekainean eta irailean % 5,0ko, % 2,9ko eta % 0,8ko jaitsierak izan

ziren, 2023. urtearekin alderatuta.

Ibilgailu astunen kasuan, hazkunde-joera positiboa da hilabete guztietan, martxoan (-% 11,9), ekainean (-% 4,5), abuztuan (-% 0,8) eta azaroan (-% 1,4) izan ezik.


Trafikoa noranzkoen arabera banatzeari dagokionez, ibilgailuen bolumena oso antzekoa da bi noranzkoetan, nahiz eta Bilbo–Gipuzkoa noranzkoan pixka bat handiagoa izan, bai guztizko ibilgailuei dagokienez, bai astunei dagokienez.

3.1.3.1. taula. Eguneko batez besteko trafikoaren hileko banaketa haztatua (ibilg./egun). 2024. urtea.

Hilabetea	Arinak	Astunak 1	Astunak 2	Guztizkoak			
				EBBI	Astunak	Astunak (%)	EBBI
Urtarrila	29.632	1.432	2.392	33.456	3.825	11,4	93,1
Otsaila	31.469	1.546	2.799	35.813	4.345	12,1	99,7
Martxoa	30.881	1.473	2.502	34.856	3.975	11,4	97,0
Apirila	32.271	1.608	2.761	36.640	4.369	11,9	102,0
Maiatza	33.887	1.663	2.729	38.279	4.392	11,5	106,5
Ekaina	33.652	1.595	2.656	37.903	4.251	11,2	105,5
Uztaila	33.183	1.564	2.664	37.411	4.228	11,3	104,1
Abuztua	28.895	1.238	1.887	32.021	3.125	9,8	89,1
Iraila	33.484	1.599	2.627	37.710	4.226	11,2	104,9
Urria	33.414	1.653	2.693	37.760	4.346	11,5	105,1
Azaroa	32.449	1.524	2.553	36.526	4.077	11,2	101,7
Abendua	29.692	1.339	1.944	32.975	3.282	10,0	91,8
URTEKO BATEZ BESTEKOAK	31.900	1.519	2.514	35.933	4.033	% 11,2	100
UDAKO BATEZ BESTEKOAK	32.283	1.497	2.456	36.236	3.953	% 10,9	100,8


INTERBIAK SOZIETATEAK KUDEATZEN DITUEN
AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK,

